



ZESTOAKO UDALA

AKTA

2020ko otsailaren 27an Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoan, bi mila eta hogeiko otsailaren hogeita zazpian, arratsaldeko zortzietan, **Mikel Arregi Urrutia** jauna mahaiburu delarik, korporakide hauek biltzen dira: **Nerea Odriozola Larrañaga, Beatriz Zubia Arambarri, Aitor Salegi Martija eta Pilar Perurena Larrañaga**, EH BILDU Udal taldeko zinegotziak; eta **Garikoitz Mendizabal Etxeberria, Eva Mangas Beobide, Katixa Monreal Cuesta, Javier Manteca Martin eta Karmel Bedita Mendizabal Irigoien** EAJ-PNV Udal taldeko zinegotziak. **Ruben Alberdi Urangak** ezin zuela etorri adierazi du.

Idazkari lanetan, Korporazioan jarduten duena, **Ander Cestona Unanue** jauna.

Alkateak ongi etorria eman ondoren gai zerrendari ekin dio

1.- 2020ko URTARRILAREN 28an BURUTUTAKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BALITZ.-

Ez da aldaketarako inongo proposamenik aurkeztu, beraz, 2020ko urtarrilaren 28an buruturiko saioaren akta bere horretan onartu da AHO BATEZ.

2.- 2/2020 ERREGE LEGE DEKETUAREN BAITAN, EUDELEN 2020RAKO ORDAINSARIEN GEHIKUNTZA GOMENDIOA.-

Alkateak adierazi du, 2/2020 Errege Lege Dekretuaren baitan EUDELeK gomendioa igorri duela. Gai hau sindikatuekin ere adostu dela gaineratu du.

2020rako %2ko igoera proposatzen dela adierazi du eta uztailean BPGren datua jakiten denean, %2,5 gainditzen badu, soldatak %1eko igoera gehigarria izango lukeela uztailetik aurrera. Eta BPGren hazkundera %2,5 baino txikiagoa balitz, igoera proportzionala izango litzatekeela EUDELen gomendio orrian jasotzen den moduan:

BPG 2,1 bada: %2,20

BPG 2,2 bada: %2,40

BPG 2,3 bada : %2,60

BPG 2,4 bada: %2,80

Ogasun batzordeak aldeko irismena eman du.

Ondoren, Alkateak bozkatzea proposatu du eta bertaratutako korporazioa legez osatzen duten hamar korporakideen aho bateko adostasunarekin, ondorengo erabakiak hartu dira:

LEHENEA.- 2020ko soldatak %2 igotzea, urtarrilaren 1eko eraginarekin, udal langile eta udal ordezkari politikoei.



ZESTOAKO UDALA

BIGARRENA.- 2020ko uztailean BPGren datua jakitean, soldata igoera aplikatzea udal langile eta ordezkari politikoei, hala badagokio, EUDELen proposamenaren arabera, erabaki gehigarririk gabe.

3.-AZPEITIA, AZKOITIA ETA ZESTOAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, UROLA ERDIKO IKASLEEI ESKAINIKO ZAIEN LOGOPEDIA ZERBITZUA KONTRATATZEKO, KUDEATZEKO ETA FINANTZATZEKO.-

Alkateak adierazi du, Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako ikasleen logopedia zerbitzua partekatuta kudeatzen dela, hain zuzen, Azkoitiak kudeatzen duelarik. Azpeitiak eta Zestoak eskertu egiten dutela eta onespena ematen dutela, horretarako hitzarmena sinatzen dela.

Ondoren, Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamar korporakideen aho bateko botoekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

LEHENA.- Zestoako udalerrian kokaturiko ikastetxeetako ikasleei logopediako udal zerbitzua eskaintzea, zerbitzuaren prestazioa arautuko duen Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako udalen arteko Lankidetzak Hitzarmena onartuz, eranskinean zehazten den testuaren arabera.

BIGARRENA.- Hitzarmenaren testua Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Erabakia Azkoitiko Udalari jakinaraztea.

4.- MARTXOAK 8, EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ALDEKO EGUNAREN INGURUAN, EHBILDUREN MOZIOA.-

Alkateak adierazi du, datorren igandeak zortzi martxoak 8 dela eta udal gobernu taldeak mozioa onartzea proposatu duela.

Beatriz Zubia zinegotziak irakurri du, eta honela dio:

“MARTXOAREN 8a ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Urtetan mobilizazio ugariak egin eta bi greba feminista izan ondoren, kaleetako aldarria argia da, erabatekoa: gure gizarteak justizian eta demokrazian aurrera egin dezan, beharrezkoa da printzipio eta aldarrikapen feministak egitura eta politika instituzionaletan txertatzea.

Beharrezkoa da, behingoz, emakume guztien indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea lehentasun politiko bat izatea. Beharrezkoa da instituzioek lehentasun hori gure gain hartzea.



ZESTOAKO UDALA

Ez zaigu argazkietan agertzea eskatzen, aitzitik, emakume eta gizonezkoen arteko parekidetasun ezari aurre egiteko guztionak diren baliabideak erabiltzea da eskatzen zaiguna.

Instituzioetan ere feminismoa egunero defendatzen eta eraikitzen delako, martxoaren 8ak Udal honek politika feministen alde hartu duen konpromisoa berresteko balio behar du.

Horregatik guztiagatik, Zestoako Udalak honako hau erabaki du:

Emakumeen eta gizonen arteko parekidetasun eraginkorraren bidean aurreratzeko neurri sorta bat garatzea udalerrian, beharrezkoak izango diren baliabide guztiak bermatuz:

Udal aurrekontuen azterketa egitea, genero ikuspegitik, Udalak hartu dituen konpromisoen bideragarritasuna bermatuz.

Berdintasun Plana egin eta honen garapena gauzatu.

Genero ikuspegi batetik udalerriko zaintzen errealitatearen azterketa egitea eta errealitate hori hobetzeko neurriak martxan jartzea, besteak beste, ondokoak jasoz:

Zaintza rolen gaineko emakumeentzako ahalduntze jarduerak abiatzea.

Gazteei zuzendutako rol berdinezaleen gaineko hezkuntza jarduerak bultzatzea.

Identifikatu diren Udalerriko emakume zein kolektibo feministen parte hartzeko bideak irekiko dira, euren iritzia kontuan hartu eta udalarekin elkarlana garatuz.

ZESTOAN, 2020KO OTSAILAREN 27AN"

Ondoren, Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamar korporakideen aho bateko aldeko botoekin mozioa onartu da.

Alkateak gehitu du, gizarte zerbitzuetako batzordean egingo dela proposaturiko gaien jarraipena, eta ekimen batzuk martxan daudela jada.

5.- 2019ko AMAIERAKO AURREKONTU ALDAKETA.-

Alkateak adierazi du, gai zerrendan ez dagoen arren, 2019ko urte amaierako aurrekontu aldaketaren berri emango duela.

Urtearen hasieran aurrekontuak onartzen direnean, aurreikuspenak izaten direla eta gero ajusteari egin behar izaten direla gehitu du. Partida asko izaten direla eta batzuetan beharrak eta beste batzuetan soberakinak sortzen direla, ondorioz, beharrezko ajusteari egiten direla kredituak batetik bestera pasatuaz. Kreditu aldaketa hau kreditu transferentzi motakoa dela gehitu du, eta 83.782,00 zenbatekoagatik. Alkatearen eskumena denez, 387 ebazpen bidez onartu zela.

6.- ERREGU ETA GALDERAK

Ez dago.



ZESTOAKO UDALA

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko zortziak eta hamabi direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

O. e.
ALKATEAK,